

Eskola nazionala

Euskaldunon Egunkaria, 1996-02-11: 3.

Orain hamar bat urte institutu batean euskal literaturaz hitz egitera joan eta senti nuen zerbait etorri zait gogora Ikastolen Elkartearen III. Batzarraren berri irakurri dudan honetan. Garai hartan ikasleek egin zizkidaten galdera desorekatuengatik susmatu nuen zerbait izan zen, eta bota nien airean euskaldun pertsonaia baten izena, ea bazekiten zer egin zuen, eta aurpegiak luzatu ziren; mende honetan sufritu genuen gerra zein urtetan piztu zen bazekiten, eta ezetz; euskara zein garaitan eta nondik etorri zitzaigun, eta harridura bera... Izutu ninduen honek. Gaur asko aldatu dira gauzak! Halere, ikasi dut Santo Tomas lizeoan bildutako ikastolen ardura Pedagogi Plan Nazionala eratzeko "lehen urratsa" dela. Badu honek garrantzia eta presa: Nola mamituko dugu hau gabe naziotasun osasuntsua datozen belaunaldietan? Ez dotrina, baina bai informazio minimo eta fidagarria. Bada, hau da, hain zuzen, gurasoen eta irakasleen partaidetzarekin egitea eskatzen ari direna hezkuntza euskalduna eta demokratikoa burutzeko. Ez da gaurkoa unerik txarrena.